



BALDINTZEN PLEGUA, EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOKO ERREPIDE EGUTEGIKO PROBA ANTOLATZAILEENTZAT

2017.12.19

SARRERA

Euskadiko Txirrindularitza Federazioko Errepide Egutegian jasotako probek ezaugarri bereziak dituzte, beren izaera eta parte-hartze maila direla eta. Horregatik, proben antolatzaileek arreta berezia eman beharko diete zenbait gairi, eta batik bat logistikaren eta langileen azpiegiturarekin zerikusia dutenei, txapelketak ahalik eta modurik onenean garatzeko.

Baldintzen Plegu honek osatu egiten ditu Euskadiko Txirrindularitza Federazioan indarrean dagoen Errepideko Proben Araudia eta Espainiako Txirrindulari Errege Federazioaren, Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Araudiak.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak probetatik kanpo utz ditzake agiri honetan jasotako aginduak betetzen ez dituzten antolatzaileak.

ANTOLATZAILEAREN ERANTZUKIZUNAK ETA ESKUMEN EREMUAK

Antolakuntzak Euskadiko Txirrindularitza Federazioari probaren gaineko datu hauek emango dizkio, Ibilbide-orrian (erantsitako eredu):

Antolakuntza-arduradunaren izena
Harremanetarako MUGIKOR zenbakia
FAX zenbakia
POSTA ELEKTRONIKOAREN helbidea
Izen-emateak egiteko toki zehatza

Antolatzailea da proba-antolakuntzaren erantzule osoa eta bakarra, autoritateen, parte-hartzaileen, laguntzaile ofizialen eta ikusleen aurrean, eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren arauak bete beharko ditu, baita administrazioari, finantza-arloari eta zuzenbideari dagozkionak ere.

Antolatzaileak bere gain hartuko du probaren zuzendaritza nagusia. Antolakuntzaren zuzendaritzak ebatziko ditu antolakuntzaren arazo materialak, indarrean dauden araudiak errespetatuz eta epaimahai teknikoari kontsulta egin ostean.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak, Lurralde Federazioek eta probaren Epaimahai Teknikoak kirol-eskakizunak kontrolatzen dituzte soilik, eta, beraz, antolatzailea da antolakuntzaren eta instalazioen kalitatearen eta segurtasunaren erantzule bakarra.

Proba antolatzen duen kirol-taldeari dagokion Lurralde Federazioak Euskadiko Txirrindularitza Federaziora dokumentu hauek bidaliko ditu: Araudia, Ibilbide-orria eta Seinaleztatze-txostena. Azken horretan, jasota geratuko da izena emateko gaitutako toki zehatza eta antolatzaileen eta antolamendu-arduradunen izenak eta haien telefono-zenbakiak.

Ezin daitezke aurreikusitako ibilbidea, data eta ordutegiak inolaz ere aldatu, ezinbesteko arrazoiengatik Trafikoko Lurralde Bulegoak, Udaltzaingoak edo Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak hala baimentzen ez badu. Aldaketa horien berri emango zaio Euskadiko Txirrindularitza Federazioari, lehenbailehen.

IBILBIDEA ETA SEINALEAK

Ibilbidean zehar, gune edo tarte arriskutsuak seinaleztatu beharko dira.

Seinaleak kokatzean, probaz kanpoko zirkulazioari nahasterik ez zaiola eragiten zaindu behar da, eta azkeneko parte-hartzailea igarotzen denean kendu beharko dira.



Probaren azkeneko kilometroa banderatzko gorri batekin seinalatu beharko da. Haren ostean, eta helmuga-marra igaro eta arrazoizko tarte batean, ez da inolako pankartarik jarriko.

Helmuga-marra 4 zentimetroko zabalera duen marra beltza izango da, 34 zentimetroko zabalera duen bi marra zuriren artean kokatuta. Horrelakorik ezean, helmuga-marra 5 zentimetroko zabalera duen marra zuria izango da, zoladurari ondo itsatsita egongo da, eta galtzadaren zabalera osoa hartuko du.

Helmuga/Meta dioen pankarta helmuga-marraren gainean jarriko da, eta lurraren gainetik arrazoizko altuera batera egongo da, ibilgailuak arazorik gabe igarotzeko eta txirrindulariak urrutitik ikusteko moduan. Pankarta jartzea ezinezkoa bada, lauki zuri-beltzak dituzten bi banderatzorekin markatuko da helmuga-marra. Bandera horiek marraren albo banatan jarriko dira. Irizpide bera jarraituko da bigarren mailako sailkapenentarako esprintak dituzten guneetan (tarteko helmugak, esprint bereziak, mendigain puntuagarriak...).

Era berdinean, bitarteko esprint hauetan pankartaren ordez jarri daitezke kartel – edo banderatzko - bana errepidearen albo bakoitzean. Kartelek nahiko altuera eduki beharko dute nabari eta ikusgai azaltzeko txirrindulari eta lasterketa barneko ibilgailuentzako.

Komenigarria da antolatzaileak helmuga-marraren aurretik derrigorrezko desbideratze bat jar dezan ibilgailu guztientzat (motorrak barne): antolakuntzakoak, talde-autoak, prentsa eta gonbidatuak. Desbideratzeak helmuga-marraren atzeko gunera eramango ditu ibilgailu guztiak.

Antolatzaileek kendu beharko dituzte probako seinaleak.

BIDEETAKO ORDEN ETA SEGURTASUN ZERBITZUA

Antolatzaileak lasterketari hasiera eta amaiera (erratz-autoa) emateko ibilgailuak jarriko ditu.

Babes-hesiak jarri beharko dira probaren irteeran eta helmugan.

Antolakuntzako kideek ibilbideko bidegurutzeak eta gune arriskutsuak estali eta seinaleztatuko dituzte.

Bidegurutzeetan eta gune arriskutsuetan dauden antolakuntza-langileek jantzi ikusgai homologatuak eraman beharko dituzte.

Segurtasun Zerbitzuan jarduten duten antolakuntza-langileek seinale egokiak eduki beharko dituzte, hala nola banderatzko horiak.

Probaz kanpoko ibilgailuei bidea moztuko diete, lasterketari amaiera ematen dion ibilgailua igaro arte (bandera berdea).

Autoritateen edo gaitutako antolakuntza-langileen ardura da probaren kontrola eta ordena mantentzea, parte-hartzaileei eta bideko beste erabiltzaileei dagokionez. Era berean, antolakuntza-langileek autoritate-agenteen irizpideak beteko dituzte.

Ertzaintzaren (edota Polizia Foralaren edo Guardia Zibilaren) jarraibideak bete beharko dira, probaren baimenari eta segurtasun-baldintzei dagokionez. Baimenean jasotako baldintzetako bat betetzen ez bada, Ertzaintzak (edota Polizia Foralak edo Guardia Zibilak) bertan behera utziko du proba, eta dagokion espediente zigortzailea abiarazi.

AZPIEGITURAK / BULEGO IRAUNKORRA

Irteera/Helmuga zonen alboan, antolatzaileak lokal edo toki estalia jarri beharko du, korrante elektriko hartunearekin eta administrazio-lanak egiteko espazio nahikoarekin: izen-emateak, lizentzia-kontrolak, zenbakiak eta plakak ematea, sailkapenak eta emaitzak argitaratzea, etab.

Bertan, antolakuntzaren arduradun batek egon beharko du, hasieratik amaierara arte.

Euskadiko txapelketa guztietan, Euskadiko Txirrindularitza Federazioak txirrindularien eta autoen zenbakiak banatuko ditu.

Antolatzailearen erantzukizuna izango dira probako ibilgailu guztien identifikazio-kartelak.



MEDIKUNTZA ZERBITZUAK ETA OSASUN ARRETA

Antolakuntzak Osasun Zerbitzuak bertan daudela eta arreta ematen dutela bermatuko du.

Antolakuntzak aurreikusi beharko du mediku bat egongo dela, proban arreta emateko.

Antolakuntzak auto bat eta gidaria jarri behar ditu medikuaren esanetara.

Medikuaren autoa Epaimahai Teknikoko lehendakariaren ibilgailuaren atzetik joango da, edo Epaimahai Teknikoak adierazitako tokian.

Antolakuntzak gutxienez anbulantzia bat eduki beharko du errepidean, norbait osasun-zentro batera premiaz eramateko, hala behar balitz. **Komenigarria da errepidean bi anbulantzia egotea. Halaber, lasterketa-eremutik gertu dagoen anbulantzia-egoitza baten telefono-zenbakia eduki beharko du.**

EPAIMAHAI TEKNIKOAREN IBILGAILUAK

Antolakuntzak lau (4) auto —bost (5) Nafarroako Foru Erkidegoan— jarri beharko ditu Epaimahai Teknikoaren esanetara, bakoitza dagokion gidariarekin. Komenigarria da autoetako batek gutxienez estali gabeko sabaia izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoan lehiatuko diren probetan, antolakuntzak motorra (1) eta gidaria eman beharko beharko dizkio Epaimahai Teknikoari. (I. eranskina)

AUTO NEUTROAK

Antolakuntzak gutxienez auto neutro bat izan beharko du errepidean. Komenigarria da bigarren auto neutro bat egon dadin, lehenengoari laguntzeko.

Auto neutroetan antolakuntzak izendatutako gidaria eta mekanikariak joango dira. Bidaiariak Epaimahai Teknikoaren jarraibideak beteko dituzte une oro.

Antolakuntzak bermatu behar du gidariak eta mekanikariak esperientzia dutela dagokien funtzioetan.

Antolakuntzak ziurtatuko du auto neutroek ordeztu piezak eta txirrindularien anoa-hornidurarako ura daramatzatela.

DOPINAREN AURKAKO KONTROLA

Edozein probatan egin daiteke, eta ez da beharrezkoa aldeztu aurretik ohartaraztea. Horretarako, ANTOLATZAILE GUZTIEK Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren Araudia betetzen duen lokal bat eduki beharko dute, dopinaren aurkako kontrola egiteko.

INFORMAZIOA LASTERKETAN ZEHAR

Proba guztietan, informazioa ITZULIKO IRRATIAREN bidez emango da, 151.700 MHz frekuentzian.

Antolatzaileak izendatuko du itzuliko irratia esataria.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak hornituko ditu Epaimahai Teknikoaren komunikazio-ekipoak eta ITZULIKO IRRATIAREN igorpen-ekipoak.

DUTXAK

Proba bakoitzaren antolakuntzak lokal bat jarri beharko du txirrindularien eskura, ur berodun dutxekin.

Instalazio horiek helmuga-zonatik gertu egon beharko dute.



APARKALEKUA

Antolakuntzak taldeetako autoak eta auto ofizialak aparkatzeko gune bat ezarri beharko du.

Irteera- eta helmuga-zonetatik gertu egon beharko du.

PUBLIZITATEA ETA BABESLEAK

Proba bakoitzeko antolatzaileek konpromisoa hartzen dute Euskal Kirol Federazioaren logotipoa lehenetsuneko leku batean sartuko dutela, probaren hedapenarako eta publizitaterako euskarri inprimatu guztietan (prentsa, kartelak, muralak, esku-programak...).

Euskal Kirol Federazioak eskubidea du egoki deritzon euskarriak eta kokapenak aukeratzeko, bere babesleen publizitatea erakuste aldera.

Proba bakoitzeko antolatzaileek konpromisoa hartzen dute publizitate hori erakusteko guneak hornitzeko.

PROBEN INSKRIZIO KUOTAK ETXF-REN ERREPIDE EGUTEGIAN

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak hilero banatuko ditu, talde eta/edo txirrindulari parte-hartzaileek lortutako sariak.

Proba-motaren arabera, antolakuntzak **BANCO SANTANDER** erakundearen **0030 3463 45 0001024271** kontu-zenbakian ordainduko zenbateko hauek, dirua sartuz edo transferentzia eginez:



Euskadiko probetan

LEHENDAKARI TXAPELKETA	2.265 € ⁽¹⁾
EUSKALDUN TXAPELKETA	2.265 € ⁽¹⁾
EUSKAL-HERRIA TXAPELKETA	900 € ⁽¹⁾
GAZTETXOAK TXAPELKETA	650 € ⁽¹⁾
EMAKUMEEN EUSKALDUN TXAPELKETA	450 € ⁽²⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Elite eta 23 Azpiko gizonak	2.250 € ⁽¹⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Junior gizonak	900 € ⁽¹⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Kadete gizonak	650 € ⁽¹⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Emakumeak	450 € ⁽²⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA eta E.I. Master	450 € ⁽²⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. Elite gizonak	450 € ⁽²⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. 23 Azpiko gizonak	900 € ⁽¹⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. Junior gizonak	600 € ⁽¹⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. Emakumeak	450 € ⁽²⁾
EPAILERAKO MOTORRA (AUKERAKOA)	80 €

Nafarroako probetan

LEHENDAKARI TXAPELKETA	1.965 € ⁽³⁾
EUSKALDUN TXAPELKETA	1.965 € ⁽³⁾
EUSKAL-HERRIA TXAPELKETA	650 € ⁽³⁾
GAZTETXOAK TXAPELKETA	400 € ⁽³⁾
EMAKUMEEN EUSKALDUN TXAPELKETA	150 € ⁽⁴⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Elite eta 23 Azpiko gizonak	1.950 € ⁽³⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Junior gizonak	650 € ⁽³⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Kadete gizonak	400 € ⁽³⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA Emakumeak	150 € ⁽⁴⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - ERREPIDEA eta E.I. Master	150 € ⁽³⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. Elite gizonak	150 € ⁽³⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. 23 Azpiko gizonak	600 € ⁽³⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. Junior gizonak	350 € ⁽³⁾
EUSKADIKO TXAPELKETAK - E.I. Emakumeak	150 € ⁽⁴⁾

⁽¹⁾ Oharra I: Dieta edota sariak barne hartzen ditu, eta baita ere arbitrajea. Ez du epailerako motorra barne hartzen.

⁽²⁾ Oharra II: Arbitrajea barne hartzen du. Ez ditu dieta edota saririk barne hartzen; ezta ere epailerako motorra.

⁽³⁾ Oharra III: Dieta edota sariak barne hartzen ditu. Ez du arbitrajea barne hartzen.

⁽⁴⁾ Oharra IV: Ez ditu dieta edota saririk barne hartzen; ezta ere arbitrajea.

Emakumeen Euskaldun Txapelketan eta Euskadiko Txapelketetan, antolakuntzak zuzenean ordainduko dizkie sariak eta dietak taldeei (edo txirrindulariei), proba egiten den egun berean.

19.12.2017



EUSKALDUN ETA LEHENDAKARI TXAPELKETAK

Proba bakoitzaren antolatzaileek sariak eta/edo dietak ordain diezazkiekete Euskadiko eta Nafarroako Federazioak ez diren txirrindulariei eta/edo taldeei. Kasu horretan, antolakuntzak ordainketa horien berri eman beharko dio Euskadiko Txirrindularitza Federazioari.

Antolakuntzak Euskadiko Txirrindulari Federazioari jakinarazten ez badio —fax, posta elektronikoa edo telefono bidez— beste erkidego edo nazio batzuetako federazioetako kide diren txirrindulariei eta/edo ekipoei ordainketak egin zaizkiela, Euskadiko Txirrindulari Federazioak probako sarien eta dieten zenbatekoa osorik itzultzeko eskatuko dio. Euskadiko Txirrindularitza Federazioak ez du inolaz ere ordaindutako aldea bere gain hartuko.

Parte hartzeko pizgarriak eta dietak:

Probari dagokion txapelketaren arabera, antolatzaile bakoitzak 600 € sartuko ditu txapelketaren funtsean. Denboraldiaren amaieran, txapelketa bakoitzaren funtsa honela birbanatuko da:

- Funtsaren amaierako zenbatekoaren % 60 proba puntuagarrien % 90ean 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin parte hartu duten araudi honen 29.A.2. artikuluan aipatuetako taldeen artean berdinbanatuko da.
- Funtsaren amaierako zenbatekoaren % 40 proba puntuagarrien % 80an 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin parte hartu duten araudi honen 29.A.2. artikuluan aipatuetako taldeen artean berdinbanatuko da.

Funtsaren bakoitzaren zenbatekoa Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren gordailuan geratuko da.

EUSKADIKO TXAPELKETAK

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak bostehun euroko (500,00 €) diru-laguntza emango die Federazioari kidegoko klubetako klubetako Euskadiko Txapelketak antolatzeagatik.

Euskadiko Txapelketak antolatzen dituzten klubek inskribatzeko diru-kopuru bat eskatzen badiete txirrindulariei, ezingo dute diru-laguntzarik jaso.



ESKAERA INPRIMAKIA
KOMISARIOAREN MOTORRA

Probaren izena:

Klub antolatzailea:

Txapelketa-eguna:

Herria:

Probintzia:

Txapelketa:

Honen bidez, jakinarazi nahi dizuegu hemen adierazitako probak Euskadiko Txirrindularitza Federaziora jotzen duela, honako zerbitzu hau eskuratzeko:

KOMISARIOAREN MOTORRA

BAI

EZ

XXXXXXXXn, 2018ko xxxxxxaren xx(e)(a)n.

Euskadiko Txirrindularitza Federaziora bidali behar da eskaera, fvc@fvascicli.eus helbide elektronikoaren edo 943.455.978 fax-zenbakiaren bidez, **PROBA EGIN BAINO 10 EGUN LEHENAGO gutxienez.**



PLIEGO DE CONDICIONES PARA ORGANIZADORES DE PRUEBAS DEL CALENDARIO DE RUTA DE LA ETx

19.12.2017

INTRODUCCIÓN

Dadas las características particulares de las pruebas comprendidas en el Calendario de Ruta de la Euskadiko Txirrindularitza Federazioa (ETx), tanto por su carácter como por el nivel de participación, los Organizadores de dichas pruebas deberán tener especial consideración en una serie de cuestiones, fundamentalmente relacionadas con la infraestructura logística y personal, para el óptimo desarrollo de las competiciones.

Este Pliego de Condiciones completa el Reglamento de Pruebas en Ruta vigente de la ETx y los Reglamentos de la Real Federación Española de Ciclismo, la Unión Ciclista Internacional, el Departamento de Interior del Gobierno Vasco y de la Dirección General de Tráfico.

La ETx se reserva el derecho de excluir de su aquellas pruebas cuyos organizadores no atendieran a los preceptos señalados en el presente documento.

RESPONSABILIDADES Y ÁMBITO COMPETENCIAL DEL ORGANIZADOR

El Organizador informará a la ETx en el Rutómetro (modelo anexo) de la prueba de los siguientes datos:

Nombre del responsable de la Organización
Número de teléfono MOVIL de contacto
Número de FAX
Dirección de CORREO ELECTRÓNICO
Lugar exacto donde se realizarán las inscripciones

El Organizador es responsable entera y exclusivamente de la organización de su prueba, tanto en su conformidad con el Reglamento de Pruebas en Ruta de la ETx, como en el ámbito administrativo, financiero y jurídico, ante las autoridades, participantes, acompañantes oficiales y espectadores.

La Dirección General de la prueba será asumida por el Organizador. Los problemas de organización puramente materiales serán resueltos por la Dirección de Organización, respetando los reglamentos vigentes y habiendo formulado consulta al Jurado Técnico.

El control ejercido por la ETx, las Federaciones Territoriales y el Jurado Técnico de la prueba se dirige únicamente a las exigencias deportivas, por lo que el organizador es el único responsable de la calidad y seguridad de la organización y de las instalaciones.

La Federación Territorial vasca o Navarra, a la que esté adscrito el club o agrupación deportiva organizador de cada prueba, remitirá a la ETx la siguiente documentación: Reglamento, Rutómetro y el Informe de Señalización (en el que figurará el lugar exacto donde se realizarán las inscripciones y nombres del organizador y del responsable de organización con sus teléfonos de contacto).

En ningún caso podrá variarse el itinerario, fecha de celebración y horarios previstos, salvo que por causa de fuerza mayor, la Oficina Territorial de Tráfico, Policía Local o la Dirección General de Tráfico lo autorice. Estas modificaciones se comunicarán a la ETx a la mayor brevedad posible.

RECORRIDO Y SEÑALIZACIÓN

El itinerario deberá señalizarse en los puntos o tramos peligrosos.

Las señalizaciones deberán ser colocadas de manera que no provoquen confusión para la circulación ajena a la prueba y deberán ser retiradas una vez pase el último participante.



El último Km. de la prueba deberá estar señalizado por un banderín de color rojo. Tras él, y hasta una distancia razonable más allá de la Línea de Llegada, no deberá existir pancarta alguna de ningún tipo.

La Línea de Llegada deberá estar constituida por una línea de 4 cms. de anchura, de color negro entre dos bandas de color blanco de 34 cms. de anchura cada una. En su defecto, la Línea de Llegada deberá estar constituida mediante una línea de color blanco de 5 cms. de anchura, perfectamente adherida sobre el pavimento y que ocupe todo el ancho de la calzada.

La pancarta con la inscripción Helmuga/Meta debe ser fijada sobre la Línea de Llegada, a una altura razonable del suelo que permita el paso correcto de los vehículos y su localización a los corredores a distancia. En caso de imposibilidad de colocación de dicha pancarta, la Línea de Llegada será señalizada mediante dos banderines –uno a cada lado de la Línea de Llegada- de cuadros blancos y negros. Idéntico criterio será empleado en los puntos del recorrido en los que exista algún tipo de sprint para cualquiera de las clasificaciones secundarias (metas volantes, sprints especiales, altos de montaña puntuables...).

En estos sprints intermedios, igualmente podrá sustituirse la pancarta por sendos carteles –o banderolas- situados a ambos lados de la carretera. Los carteles deberán ser de una altura suficiente que garantice su visibilidad y localización tanto a corredores como a los vehículos en carrera.

Es recomendable que, con anterioridad razonable a la Línea de Llegada, el Organizador prevea un desvío obligatorio para todos los vehículos (incluidas las motos) de Organización, equipos, prensa e invitados. El desvío deberá facilitar que los vehículos desviados puedan acceder a las inmediaciones posteriores a la Línea de Llegada.

Los Organizadores deberán responsabilizarse de la retirada de los elementos de señalización de la prueba.

SERVICIO DE ORDEN Y SEGURIDAD VIAL

El Organizador debe incorporar vehículos de apertura y cierre de carrera (Coche Escoba).

Se deberán colocar vallas protectoras de defensa en las zonas de salida y llegada de la prueba.

Los cruces del recorrido y zonas peligrosas del mismo serán cubiertos y señalizados por miembros de la Organización.

El personal de la Organización destinado a cruces y zonas peligrosas deberá estar dotado de vestimenta de alta visibilidad homologada.

El personal de Organización que actúe en el ámbito del Servicio de Seguridad deberá estar provisto de elementos de señalización adecuados tales como banderas amarillas.

Impedirán el paso de vehículos ajenos a la prueba, hasta el paso del vehículo de cierre de carrera (bandera verde).

El control y orden de la prueba, tanto en lo que respecta a los participantes como al resto de usuarios de la vía, estará encomendado a los agentes de la autoridad o al personal de la Organización habilitado, que actuará conforme a las directrices de los agentes de la autoridad.

Serán atendidas las instrucciones de la Ertzaintza (Policía Foral o Guardia Civil) en cuanto al cumplimiento de las condiciones de la autorización y de seguridad de la prueba. El incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en la autorización llevará consigo la suspensión de la misma por la Ertzaintza (Policía Foral o Guardia Civil), y todo ello sin perjuicio de la posible incoación del oportuno expediente sancionador.

INFRAESTRUCTURAS / OFICINA PERMANENTE

Anexo a las zonas de Salida/Meta, el Organizador deberá disponer de un local o lugar cubierto, con toma de corriente eléctrica y con espacio suficiente para la realización de tareas administrativas tales como inscripciones, control de licencias, entrega de dorsales y placas, clasificaciones, publicación de resultados...

En este lugar existirá una persona responsable de la organización desde la apertura hasta el cierre.



En todos los Torneos y Campeonatos de Euskadi, la ETxF facilitará los dorsales de los corredores y los números de coches.

El Organizador se responsabiliza de los carteles identificativos de todos los vehículos de la prueba.

SERVICIOS MÉDICOS Y ASISTENCIA SANITARIA

El Organizador garantizará la presencia y asistencia del Servicio Sanitario.

El Organizador deberá tener prevista la presencia de un médico en exclusividad para la prueba.

El Organizador deberá facilitar al médico, un coche y un conductor a su disposición.

El coche del médico, circulará en carrera a continuación del vehículo de Presidente del Jurado Técnico o en el lugar que le indique Jurado Técnico.

El Organizador deberá tener prevista al menos una ambulancia que circule en carrera, al objeto de asegurar un traslado urgente a algún centro sanitario. **Es recomendable que sean dos ambulancias las que circulen en carrera. Así mismo, deberá tener un número de teléfono de una base de ambulancias próxima al lugar de carrera.**

VEHÍCULOS JURADO TÉCNICO

El Organizador deberá facilitar cuatro (4) coches – cinco (5) en la Comunidad Foral Navarra - con sus correspondientes conductores a disposición del Jurado Técnico. Es recomendable que al menos uno de los coches tenga techo descubierto.

En las pruebas que se disputen en Territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, el Organizador deberá facilitar una (1) moto con su correspondiente piloto, a disposición del Jurado Técnico. (Anexo I)

COCHES NEUTROS

El Organizador deberá tener prevista la presencia mínima de un Coche Neutro en carrera. Es recomendable asistencia de un segundo coche neutro.

El o los coches neutros, deberán estar ocupados por conductor y, preferentemente, mecánico asignados por el Organizador. Los ocupantes atenderán en todo momento a las instrucciones impartidas por el Jurado Técnico.

El Organizador velará que tanto el conductor y el mecánico, sean experimentados en sus respectivas funciones.

El Organizador cuidará de que el o los coches neutros, lleven material de repuesto y agua para el avituallamiento a los corredores.

CONTROL ANTIDOPAJE

Podrá realizarse sin previo aviso, en cualquier prueba. Por lo tanto, TODOS LOS ORGANIZADORES deberán tener previsto un local que cumpla con el Reglamento de la UCI para la realización del Control Antidopaje.

INFORMACIÓN EN CARRERA

En todas las pruebas se ofrecerá información de RADIO VUELTA en la frecuencia de 151.700 MHz.

El Locutor de Radio Vuelta será una persona designada por el Organizador.

Los equipos de comunicación del Jurador Técnico y emisión de RADIO VUELTA serán proporcionados por la ETxF.

DUCHAS

El Organizador de cada prueba deberá poner a disposición de los corredores un local con duchas provistas de agua caliente.

Estas instalaciones deberán situarse en las inmediaciones de la Zona de Meta.



PARKING

El Organizador deberá prever un espacio de aparcamiento de vehículos para equipos y coches oficiales exclusivamente.

Deberá estar ubicado en las inmediaciones de las Zonas de Salida y Llegada.

PUBLICIDAD Y PATROCINADORES

Los organizadores de cada prueba se comprometen a incluir, en lugar preferente, el logotipo de la ETxF en todos aquellos soportes impresos (prensa, carteles murales, programas de mano...) de difusión y publicidad de su prueba.

La ETxF se reserva el derecho de disponer de los soportes y ubicaciones que estime oportunos para la exposición de la publicidad de sus patrocinadores propios.

Los Organizadores de cada prueba se comprometen a facilitar los espacios para la exposición de la antedicha publicidad.

CUOTAS POR INSCRIPCIÓN EN EL CALENDARIO DE RUTA - ETxF

El montante de premios obtenidos por los equipos y/o corredores participantes será distribuido mensualmente por la ETxF.

El Organizador deberá abonar, mediante ingreso o transferencia en la cuenta bancaria nº **0030 3463 45 0001024271** de la entidad BANCO SANTANDER, las siguientes cantidades dependiendo de cada tipo de prueba:



Pruebas en Euskadi

TORNEO LEHENDAKARI	2.265 € ⁽¹⁾
TROFEO EUSKALDUN	2.265 € ⁽¹⁾
TORNEO EUSKAL-HERRIA	900 € ⁽¹⁾
TORNEO GAZTETXOAK	650 € ⁽¹⁾
TROFEO EUSKALDUN FEMENINO	450 € ⁽²⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Hombres Elite y Sub-23	2.250 € ⁽¹⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Hombres Junior	900 € ⁽¹⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Hombres Cadete	650 € ⁽¹⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Mujeres	450 € ⁽²⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA y CRI Master	450 € ⁽²⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Hombres Elite	450 € ⁽²⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Hombres Sub-23	900 € ⁽¹⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Hombres Junior	600 € ⁽¹⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Mujeres	450 € ⁽²⁾
MOTO - ARBITRO (OPCIONAL)	80 €

Pruebas en Navarra

TORNEO LEHENDAKARI	1.965 € ⁽³⁾
TROFEO EUSKALDUN	1.965 € ⁽³⁾
TORNEO EUSKAL-HERRIA	650 € ⁽³⁾
TORNEO GAZTETXOAK	400 € ⁽³⁾
TROFEO EUSKALDUN FEMENINO	150 € ⁽⁴⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Hombres Elite y Sub-23	1.950 € ⁽³⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Hombres Junior	650 € ⁽³⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Hombres Cadete	400 € ⁽³⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA Mujeres	150 € ⁽⁴⁾
CTOS. DE EUSKADI - LÍNEA y CRI Master	150 € ⁽³⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Hombres Elite	150 € ⁽³⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Hombres Sub-23	600 € ⁽³⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Hombres Junior	350 € ⁽³⁾
CTOS. DE EUSKADI - CRI Mujeres	150 € ⁽⁴⁾

⁽¹⁾ Nota I: Incluye premios y/o dietas, y Derechos de Arbitraje. No incluye Moto de Árbitro.

⁽²⁾ Nota II: Incluye Derechos de Arbitraje. No incluye premios y/o dietas, ni tampoco Moto de Árbitro.

⁽³⁾ Nota III: Incluye premios y/o dietas. No incluye Derechos de Arbitraje.

⁽⁴⁾ Nota IV: No incluye premios y/o dietas. No incluye Derechos de Arbitraje.

En el Trofeo Euskaldun Femenino y Campeonatos de Euskadi, para Mujeres, los premios y dietas deberán ser abonados directamente por el Organizador a los equipos (o corredoras) el mismo día de celebración de cada prueba.

19.12.2017



TORNEOS EUSKALDUN Y LEHENDAKARI

Los Organizadores de cada prueba que lo deseen podrán abonar los premios y/o dietas a los equipos y/o corredores no pertenecientes a las Federaciones Vasca y Navarra. En este caso, el Organizador deberá notificar a la ETxF la ejecución de dichos pagos.

En el caso de que el Organizador no advierta a la ETxF –mediante fax, correo electrónico o teléfono– de los pagos efectuados a corredores y/o equipos provenientes de otras federaciones autonómicas o nacionales, la ETxF reclamará el importe íntegro del capítulo de premios y dietas de la prueba concernida. En ningún caso, la ETxF se hará cargo de la diferencia abonada.

Incentivos a la Participación – Dietas:

En función del Torneo en el que se encuentre inscrita su prueba, cada organizador aportará 600 € destinados al fondo de ese Torneo. Al final de la temporada, el fondo de cada Torneo será redistribuido de la siguiente manera:

- el 60% del montante final del fondo, a partes iguales entre los equipos referidos en el Art. 29.A.2., del presente Reglamento, que hayan participado con 6 ó más corredores en al menos el 90% de las pruebas puntuables;
- el 40% del montante final del fondo, a partes iguales entre los equipos referidos en el Art. 29.A.2., del presente Reglamento, que hayan participado con 6 ó más corredores en al menos el 80% de las pruebas puntuables.

El montante correspondiente a cada fondo permanecerá en depósito de la ETxF.

CAMPEONATOS DE EUSKADI

La ETxF subvencionará con la cantidad de quinientos (500,00) € a aquellos clubs afiliados a la ETxF que organicen Campeonatos de Euskadi.

Aquellos clubs organizadores de Campeonatos de Euskadi que exijan el pago de cantidad económica alguna en concepto de inscripción de los participantes no tendrán derecho a dicha subvención.

Nota: En este documento, el género masculino es empleado a título genérico con el único objetivo de tratar de hacer más llevadera la lectura del texto. El uso del género masculino debe ser considerado en sí como referencia a ambos sexos. Por lo tanto, términos como “corredor”, “organizador”, “Director Deportivo”, etc... se refieren tanto a un hombre como a una mujer que desarrollan la actividad deportiva ciclista.



FORMULARIO DE SOLICITUD

MOTO DE COMISARIO

Denominación de la prueba:

Club organizador:

Fecha de celebración:

Localidad:

Provincia:

Torneo:

Deseamos poner en vuestro conocimiento que la prueba de Ref^a. requerirá de la Euskadiko Txirrindularitza Federazioa para que le sea facilitado el servicio siguiente:

MOTO DE COMISARIO

SI

NO

En _____, a _____ de _____ 2018.

La solicitud deber ser enviada a la Euskadiko Txirrindularitza Federazioa, a través de e-mail (fvc@fvascicli.eus), o fax nº 943.455.978, al menos 10 DIAS ANTES DE LA FECHA DE CELEBRACIÓN DE LA PRUEBA